AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

2026-11-20 / 920 ZENBAKIA / 22. URTEA
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM

Iristear da Amaia Agirre Mendi Zinemaldia Urnietara



Tasio Martin eta Txetxu Lete hizlari ariko dira Saroben, hilaren 26an eta 27an / 6-7

Mendi lasterketa: Poxta Trail lasterketa berria aurkeztu du Urnietako Gazte Kuadrillen elkarteak / 12

Zesta-punta: Andoain Jai Alai Winter Series desafioa, igandean, Arrate pilotalekuan / 13

Futbola: Euskalduna-Getaria, lehen bi sailkatuen arteko partida Ubitarten / 11

Eskubaloia: Leizaran-Urnieta, senior mailako partida Allurralden / 11

38. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren ekitaldi nagusia

Kazetaritza eta komunikazio sariak ezagutzera ematearekin batera, ohorezko mugarria emango zaio **Arritxu Iribar Egaña** komunikatzaileari.

Dantza emanaldia: **Gero Axular dantza taldea.**

Azaroak 20, ostirala. 19:00
Bastero Kulturgunea, Andoain

Sarrera irekia da, ekitaldira sartzeko ez da gonbidapenik behar.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

ANDOAINGO UDALA

ANDOA INBIZI TZEKO

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



KOMUNITATEA

MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA ANDOAIN

Gabonetako azokan parte hartzeko deialdia

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak Gabonetako azoka antolatuko du Andoainen, Kale Berria 50eko lokalean (Gipuzcoano zaharra). Herriko artista eta sortzaileak parte hartzera animatu nahi ditu, eta izena emateko deialdia zabaldu du.

Gabonetako azoka hiru egunez egingo da, eta herriko sortzaileek beren lanak erakusteko eta salgai jartzeko aukera izango dute, Gabonetako giroan eta herritarren topagune izango den espazio batean.

Azokaren ordutegia honako hau izango da:

- Abenduaren 11, ostirala: 17:00-20:00.
- Abenduaren 12, larunbata: 10:30-13:30 eta 17:00-20:00.
- Abenduaren 13, igandea: 10:30-13:30.

Azoka egunetan, postuez gain, tailer edo ikuskizunen bat ere antolatzeko asmoa du bazkunak, ekitaldiari dinamismoa emateko eta herritarrei eskaintza osagarri bat eskaintzeko. Egitarau hori aurrerago zehaztuko da.

Gehienez sei postu izango dira azokan, eta Andoainen jaiotakoek edo herrian bizi direnek izango dute lehentasuna. Hala ere, Andoaingoak ez diren sortzaileek ere izena eman ahal izango dute.

Bestalde, iaz Gabonetako azokan posturik jarri ez zutenek lehentasuna izango dute aurten, parte-hartzaile berriei aukera eman eta sortzaileen artean espazio hori partekatzeko asmoz.

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak herriko artista eta sortzaile guztiak animatu nahi ditu deialdian parte hartzera, beren lanak erakusteko eta Gabonetako azoka giro berezi horren parte izateko.

Azokan parte hartzeko interesa dutenek izena emateko galdetegi baten bidez egin ahal izango dute eskaera. Jasotako eskaerak aztertu ondoren, antolakuntzak postuen esleipena egingo du, kontuan hartuta ezarritako lehentasun-irizpideak.

Informazio gehiago jasotzeko edo zalantzak argitzeko, interesdunek Manuel Larramendi Kultur Bazkunarekin harremanetan jarri ahal izango dute, 688 718 916 telefono zenbakian edo harrera@larramendikulturbazkuna.eus helbidera idatziz edota QRan izena emanda.



Iaz ere Kale Berria 50eko lokalean (Gipuzcoano zaharra) egin zen azoka. AIURRI

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA
www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri: Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 55 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra: Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Lide Ruiz Telleria.
Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnieta).
Diseinua: Goiena / TOKIKOM.
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ
ALIATUAK: TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:
ANDOAINGO UDALA
Urnieta udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:
Gipuzkoako Foru Aldundia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BABESLEAK: **Aiurriko harpidedunak** ezinbestekoak dira.

AIURRIk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

GIPUZKOA
Foru Aldundia
Babestutako hedabidea

KOMUNITATEA

ZILEGI-ESKOLA URNIETAKO AEK-KO C1 MAILAKO IKASLEAK

Turismo hutsalari buruzko zilegi-ondorena, hitzetan



Azaroaren 4an Lekaiora joan ginen Zilegi Eskolara, turismo hutsalari buruzko hitzaldi bat entzutera. Fito Rodriguez izan zen hizlaria eta bere ikuspuntua azaldu zigun. Fitoren ustez, gaur egungo turismoa kolonialismo berria da. Noraino iritsiko gara turismo hutsalarekin?

Lehenik eta behin, Zelanda Berrira egindako bidaia aipatu zuen eta konparaketak egin zituen Britaniarren eta Maorien artean. Britaniarrak Zeelanda Berrian (Maorieraz: Aotearoa) agertu baino lehen, bertan bazegoen Maorien kultura eta euren hizkuntza erabiltzen zuten. Orain, berriz, ia denek ingelesez hitz egiten dute. Horregatik, jatorrizko hizkuntza berreskuratzen ari dira. Hori ikusita, esan dezakegu Fito Rodriguezek arrazoi duela, hau da, gaurko turismoa kolonialismo berria dela.

Alde batetik, alde onei dagokienez, turismoaren bidez kultura berriak ezagutzen ditugu eta hori oso aberasgarria da. Horrez gain, bertakoei dirua ematen die turismoak, adibidez, bertako gauza tipikoak erosterakoan, jatetxeetara joaterakoan, etab.

Bestalde, alde txarrak ere baditu. Esate baterako, masifikazioa, kutsadura, prezioak igotzen dira eta lasaitasuna bukatzen da. Halaber, autoktonoak euren nortasuna galtzen ari direla ere esan behar da.

Bukatzeko, gure konklusioa da ondo dagoela bidaiatzea, baina ondorio kaltegarri gehiago ekartzen dituela. Hortaz, zerbait egin beharko genuke hori aldatzeko, beranduegi izan aurretik, etorkizun hobea lortzeko.

100 urte bete ditu Abelinak



AIURRI

Abelina Amutxategi Atorrasagasti Etxarri baserrian bizi da eta aste honetan 100 urte bete ditu. Igandean, senitartekoez gain, Andoni Alvarez alkatea eta Olagain Txistulari elkarteko kideak ere hurbildu ziren ospakizunera. Gaztetan, besteak beste, Algodonera Subijana ehundegian irule gisa aritu zen lanean, eta baita Uranga tabernan ere, zerbitzari.

Gau Beltzako saridunak



AIURRI

Andoaingo Gau Beltzaren mozorro-lehiaketan bi sari banatu ziren. Lehena, helduena, otordua zen Danena jatetxean. 16 urte azpikoena, aldiz, merienda zen. Hala, irabazleak gozo-gozo izan ziren Arruti kafetegian. Saridunek argazkia helarazi diote Aiurri astekariari. Merezitako merienda, Gau Beltzan mozorrotzeagatik eta lehiaketa irabazteagatik.



Lekaion egin zuten aurkezpen-ekitaldia. AIURRI

Zaintzari buruzko topaketa, Urnietan, kafearen bueltan

Hitzordua igande arratsaldean izango da, 17:00-19:00 artean, Kiroldegiko erabilera-anitzeko gelan

Erredakzioa URNEITA

Giro lasaian zaintzari buruz hitz egiteko, entzuteko eta lagunduta sentitzeko espazioa da Kafe Zaintzaileak izenekoa. Taldeko kideen hitzetan, "epaitu gabe entzunak sentitzeko, esperientziak partekatzeko eta elkar hobeto ezagutzeko" sortu da ekimena. Igande honetan dute hitzordua, arratsaldeko 17:00etan hasita, Kiroldegiko erabilera anitzeko gelan.

Ekimena herritar guztiei zuzenduta dago: adinekoei, gazteei, zaintzaileei eta, oro har, partekatzeko eta entzuteko gogoa duen orori. Sustatzaileek parte hartzeko deia luzatu dute.

Hilabete atzera egin zuten aurkezpena, Urnietako zaintza ekosistema hizpide izan zuten jardunaldian. Josune Zubeldia, Eli Etxezarreta, Tere Lasarte, Consuelo Frutos, Ana Rozas eta Joxpi Lasak jarri dute abian Kafe Zaintzaileen taldea.

Orduko hartan adierazi zutenez, espazioa Urnietako pertsona guztientzat irekita dago: "adinekoak, gazteak, zaintzaileak, bizilagunak eta partekatzeko edo entzuteko gogoa duen edonor".



AIURRI

"Nekearen teoria" erakusketa

Zabalik da erakusketa berria Bastero Kulturgunean. Punto de Catastrofe eta Gu Argazki Taldea kolektiboen eskutik. Argazkia modu irekian adierazteko hamabi pieza ikusgai jarri dituzte. Tartean, collage-a, fotomuntaia eta abar. Haien guztien artean badira bi andoaindar: Maddi Trutxuelo Garcia eta Rosa Zozaya.

Buruntzaldea euskaraz 920 ZENBAKIA AIURRI BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

"Familietan euskararen transmisioa egitea funtsezkoa da gure hizkuntzak bizirauteko»

Buruntzaldeko udaletako euskara zerbitzuek garbi daukate haurrak txikitatik euskaraz hezteak bermatzen dituela hizkuntzaren ezagutza eta erabilera, eta aspalditik ari dira bide horretan lanean. Besteak beste, haur jaioberri guztien familiei ematen diete opari sorta, euskararen transmisioan laguntzeko materialarekin



Erredakzioa BETERRI-BURUNTZA

Euskararen transmisioa familiaren bitartez eman dadin errazteko, 20 urte baino gehiago daramatzate lanean Buruntzaldeko sei udalek. 2003an hasi zuten bide hori eskualdeko udaletako euskara zerbitzuek, Andoainen, Astigarragan, Lasarte-Orian, Hernanin, Urnietan eta Usurbilen; eta bide horrek ez du etenik izan.

Alderantziz, erakundeek urte hauetan guztietan egin dute lan, gurasoak jabetu daitezen euskararen transmisioan zer garrantzi duten.

Nabarmendu dute «funtsezkoa» dela familietan euskararen transmisioa egitea, «gure hizkuntzaren biziraupenerako». Izan ere, diote haurrak txikitatik euskaraz hezteak bermatzen dituela hizkuntzaren ezagutza eta erabilera, eta horrek, aldi berean, sustatzen duela euskararen normalizazioa.

Sentsibilizatzeko eta euskara indartzeko, ekimen ugari

Bide horretan, gurasoak dira «haurraren lehen erreferenteak», eta eragin handia dute hizkuntzaren transmisioan. Hori balioan jartzeko eta «etxeetan geure egiteko», hainbat ekimen jarri dituzte martxan eskualdean, modu bateratuan. Besteak beste, eskaini dituzte hitzaldiak, sortu eta gauzatu dituzte egitasmo berezituak ikastetxe nahiz eragileekin batera, eskura jarri dituzte informazio-eskuorriak eta gidak, eta harrera-saioak egin dituzte haur jaioberrien familiekin.

Baina sentsibilizazioaz gainera, euskara indartzeko ere egin dituzte hainbat ekimen euskara zerbitzuek, eta ari dira horretan oraindik ere, sei herrietan: gurasoentzako euskara-eskolak, familientzako lantegiak, Gurasolagun proiektua, begiraleentzako formazioa...

Guraso berrientzako opariak, euskararen transmisioan laguntzeko

Euskara indartzeko ekimen horietako bat da sei udalerrietan, haur jaioberrien familiei opariak egitea. Zehazki, opari-sorta bat daukate prestatuta, guraso berriei ematen dietena: haur kantak, jolasak eta esapide erabilienak dauzkan liburuxka bat, 'Ongi etorri jaioberri!' karpetatxoa, hozkailuan jartzeko imana (eguneroko hitz eta espresioekin), eta Hazi Hezi aldizkariaren alea. Gainera, euskara.buruntzaldea.eus webgunean ere badago material gehiago: jolasak, esapideak, kantak...

Opari horiek helburu dute euskararen transmisioa sustatzea, eta baliabide praktikoak dira «gurasoen eta haurren euskararen erabileran eragiteko».

Baliabide eta material horien guztien berri jaso dugu azpiko koadroetan.

Aukera zabala



LIBURUXKA TOLESGARRIA

Koloreak, animaliak eta zenbakiak ikasteko baliabideez gain, liburuxkak haur kantak, jolasak eta esapide erabilienak jasotzen ditu. Gainera, beste liburuxka txiki baten bitartez, aholkuak ere eskaintzen dituzte gurasoen hizkuntza gaitasunaren arabera egokituta, euskararen transmisioan laguntzeko.




'ONGI ETORRI JAIOBERRI!' KARPETATXOA

Haur jaioberrien familiei ematen zaizkien opari eta baliabide guztiak karpetatxo batean bilduta eskaintzen dizkiete; eta karpetan bertan, mezu hauxe ageri da: 'Ongi etorri! Zorionak zure haurraren jaiotzagatik!' Mezu hori, baina, hamabost hizkuntzatan idatzita ageri da.



HOZKAILUAN JARTZEKO IMANA

Eguneroko esamolde ohikoe- nak jasotzen ditu, eguneko lau unetan sailkatuta: agur- tzeko esamoldeak, otorduetan erabiltzekoak, egunean zehar baliatu daitezkeenak, eta gauekoak. Hozkailuan itsastekoa izanik, gurasoek begibistan izango dute edozein unetan, behar dutenerako erabilgarri.



HAZI HEZI ALDIZKARIA

Hik Hasik argitaratuta, aldizkari espezializatua da, gurasoei eta hezkuntzako profesionalei zuzendutakoa. Hezkuntzarekin, pedagogiarekin eta hazkuntzarekin lotutako gaiak jorratzen ditu aldizkariak. Aldizkariaren ale bana ematen diete guraso berriei.



WEBGUNEKO EDUKIAK

Buruntzaldea Euskaraz atarian (euskara.buruntzaldea. eus) hainbat baliabide daude eskuragarri: haurrekin grabatutako bideoak, liburuxkan jasotako kantak eta jolasak ikasi ahal izateko. Gainera, kultur agenda euskalduna ere ikusgai dago webgunean bertan, familiek gozatzeko jarduerekin.

Gozatu euskara ematen, eta heldu erabileraren erronkari

Hiru multzotan banatuta, hainbat gako plazaratu ditu Ebete Hizkuntza Zerbitzuakeko Iñaki Eizmendi Arsuagak, familietan euskararen transmisioa eman dadin laguntzeko eta errazteko



Iñaki Eizmendi Arsuaga, Ebete Hizkuntza Zerbitzuaken sortzailea.

Erredakzioa BETERRI-BURUNTZA

Hainbat urtez Ttakun Kultur Elkarteko teknikari izan ondoren, Ebete Hizkuntza Zerbitzuak sortu zuen 2007an. Ebetek baliabideak eta proiektuak garatzen ditu, haur eta nerabeen euskararen erabileran, gaitasunean eta motibazioan eragiteko; eta gaur egun erreferentea da eremu horretan. Iñaki Eizmendik berak eragile ezberdinekin egiten du lan: familientzako sentsibilizazio saioak, irakasleentzako ikastaroak, edota kiroleko eta eskola orduz kanpoko jarduerei begirako saioak eta proiektuak, besteak beste. Hainbat gidaren edukiak ere garatu izan ditu, eta zenbait ikerketatan hartu du parte. Oraingoan, hainbat gako ekarri dizkigu, familietako euskararen transmisioan laguntzeko.

Gozatu euskara ematen

Zuen seme-alabek euskara aberatsa izatea, familion ardura ere bada.

Zer da euskara aberatsa izatea? Edozein egoera eta harremanetan euskaraz (ere) eroso aritzeko gai izatera iristea: lagunartean, ikasketetan, helduekin harremanean, kirolean, aisialdian…

- Eskaini euskara etxetik: euskalduna bazara, jolastu hizkuntzarekin (hitz egin, abestu, ipuinak irakurri… zenbat eta gehiago, hobe!). Euskaraz ondo ez badakizu edo gutxi gutxi baldin badakizu, zaindu zuen hizkuntza eta eskaini euskara eguneroko esamoldeen, abestien eta jolasen bidez.
- Zaindu etxean euskarak duen lekua: euskara entzun eta bizitzeko aukera izan dezatela. Giroan egon dadila euskarazko edukien bidez: musika, ipuinak, aldizkariak… Eta zuek ere egin euskarari lekua etxean: irratia, prentsa, telebista…
- Eskaini ahal duzuen euskara guztia ingurune hurbilean. Bereziki, eskolaz kanpoko jardueretan: euskarazkoak hautatu, eta euskararen presentzia eta erabilera zaindu ditzatela eskatu. Erabiliz garatzen da gaitasuna.

Heldu erabileraren erronkari

Lagundu diezaiegun lagunartean eta beste hainbat harremanetan euskara erabiltzeko benetako aukerak izaten.

Zer da erabileraren erronka? Euskara erabiltzea ez da aukera soil bat, ibilbide baten ondorioa izaten da. Lagundu txikiak direnetik ibilbide indartsua izaten.

- Eredu indartsuak eskaini: euskaldunon kasuan, ikus dezatela euskarak balio dizuela eguneroko bizitzan. Benetako Ahobizi edo Belarriprest bazarete, eredu bikaina eskainiko diezue seme-alabei.
- Bizipenak eta erreferenteak eskaini: euskaraz diren bizipenak eta erreferenteak behar dituzte euskara balio indartsuekin lotzeko. Eskolaz kanpoko jarduerak oso lagungarriak dira.
- Euskaraz bizi diren talde eta giroetan parte hartu edo harremanetan jarri: euskarazko ekitaldietara joan (zinema edo antzerkia, adibidez) eta euskararen aldeko ekitaldietan parte hartu (Korrika, Euskararen eguna edota Euskaraldia).

Eskolak badu ardura; baina mugak ere bai

- Lagundu eskolari hizkuntzak irakasteko bidean: etxetik eta ingurune hurbiletik euskara asko eskaintzea familion ardura da, eta eskolak mugak ditu euskara aberatsa eskaintzera begira.
- Euskararen erabilerarekiko interesa erakutsi: galdetu irakasleekin egiten duzuen bileretan euskararen erabilerari buruz, eta kontuan izan beraien aholkuak.



Tasio Martinek balentria egin zuen Sean Villanueva belgikarra lagun zuela: Fitz Roy mendiko ekialdeko ertza liberatzea. MARTIN

“Patagonia nire bigarren etxea bezalakoa da”

TASIO MARTIN ELORRIETA MENDIZALEA

Fitz Roy mendi dotoreko ekialdeko ertzean martxoan egindako balentriaz mintzatuko da Saroben, hilaren 27an

Erredakzioa URNIETA

Mendizalea izan behar zuen bai edo bai (Urduña, 26 urte). Joseba eta Yoli gurasoak Himalaia aldean ibili ziren sarri, Tasio bera amaren sabelean zela artean. Urduñako semea alpinista bikaina eta eskalatzaile aparta bilakatu da. Martxoan eskalada munduko begiradak bereganatu zituen, Sean Villanuevarekin batera Fitz Roy menditzarreko Ekialdeko ertza librean eskalatu ondoren, bide hori ireki zela mende erdia bete ondoren. 1.200 metroko paretan zintzilik pasa zituzten hiru egunak izango ditu Tasiok hizpide datorren ostiralean.

Nor zaitugu, Tasio. Azaldu zure mendi bidea pixka bat, mesedez.

Urduñarra naiz, eta txiki-txikitatik mendian ibilia gurasoekin. Handik aurrera han eta hemen ibili naiz, nire kabuz ikasten, lagunak egiten. Picos-en hasi nintzen, Pirinioak gero. Kristoren lekuak biak, abentura eta konpromiso handikoak. Alpeetan ibili nintzen oso gazte, 16 urterekin Freney bide ezagunean. Gero ja Nepal, India, Pakistan, eta azkena Patagoniara lehen aldiz. Urtero joaten naiz orain.

Patagonia maite duzu, bereziki, Tasio. Zergatik? Zer daukate Fitz Roy eta Cerro Torre mendiek, eskalatzaileengan halako miresmena sortzeko?

Gauza bereziren bat bai. Batzuk ez dute bueltatu nahi izaten eguraldi txarragatik, besteok bueltatzeko amorruz egoten gara. Oso mendi politak dira, bereziak, granito orratzak, oso teknikoak eta bertikalak. Oso zailak, ez dago bide errazik. Bertako komunitatea ere oso garrantzitsua da niretzat, ze eguraldi txarra dagoenean babesean egon behar duzu, eta gustura egotea oso garrantzitsua da. Harremana sortzen da lekua eta bertako jendearekin bizpahiru hilabetez. Patagonia nire bigarren etxea bezalakoa da, dagoeneko. Eskalatu gabe ere bizitzen ari zarela sentitzen duzu.

Sean Villanueva belgikarrarekin ireki zenuen bidea azalduko duzu proiekzioan. Lorpen historikoa izan da, duela mende erdian ireki zuten bidea liberatu baitzenuten…

Fitz Roy eta Torres del Paineko zeharkaldia izango dira emanaldiko ardatz. Eskalada soilaz harago, zelan sortzen diren halako aukerak. Patagoniara ezin duzu helburu zehatz batekin joan, normalean ez delako gauzatzen. Bidaia hori, aukera hori nola sortzen den azaltzen dut, prozesua, ez aktibitatea bera bakarrik. Gero paretako lana eta bizipenak ere bai, noski, baina intentzioa pertsona batek tamainako proiektu batean sartzea nola erabakitzen duen azaltzea da.

Hiru egun egon zineten paretan zintzilik, amildegi latza hankapean, eta non eta Patagonian, non eguraldia beti izan litekeen arriskutsua…

Bide osoa liberatzea ezinezkotzat jotzen genuen ekin aurretik. Bai nik eta bai Sean-ek ere. Lasai geunden oso zaila zelako. Gero behin helburua lortuta, 7-10 egun eman genituen hegan, poz laino batean. Jabetzen zoaz aktibitate handia dela. Bai niretzat, baita hango komunitatearentzat ere. Saiakera bakarra egin da bide horretan, oso bide berezia eta polita da.

Zer moduz zabiltza emanaldien munduan? Denbora asko daramazu, gustuko duzu?

Patagoniako kontuak eman dit bultzada emanaldiekin betebetean hasteko. Fitz Roytik jaitsita jabetu nintzen, istorio biribil bat neukala kontatzeko. Lagun bat daukat halako muntaiak egitea gustuko duena, eta aurrera egin nuen bere laguntzaz. Bi emanaldi izan ditut orain arte, eta Urnietakoa bosgarrena izango da. Poz-pozik nago. Jendea oso gustura mintzatu zait ekoizpena ikusita. Oraindik hunkitzen naiz nire irudiak ikustean etxean.

Amaia Agirre Mendi Zinemaldia

Zanpatuz mendi elkarteak Amaia Agirre mendi zinemaldiko 3. edizioa antolatu du, azaroaren 26rako eta 27rako.

Urtarrilean lau urte beteko dira Leire eta Iker Bilbao laguna Patagoniako menditzar hartan zendu zirenetik, eta Zanpatuz mendi elkarteak, Urnietako Udala lagun, eskalatzailearen oroimena bizirik mantendu nahi du. Aurtengo bi emanaldietako protagonistek Amaia Agirre ezagutu zuten, eta horrek are bereziago egingo du aurtengo ekitaldia.

Azaroak 26 eta 27, Saroben

Bi emanaldiak iluntzeko 19:30ean izango dira, eta sarrera doakoa izanen da. Ez da izenik eman beharko aurrez emanaldiaz gozatzeko. Amaia Agirrerekin batera Ander Elustondo gazteari ere omenalditxoa egingo zaio. Jakina denez, "Elus" udan hil zen, Midi d’Ossau gailurrean jausi ostean.

Osteguneko emanaldiko arduraduna aski ezaguna da Urnietan: Txetxu Lete. Irakaslea herriko ikastolan, 8.000 metroko hiru tontor igo zituen 90. hamarkada bukaeran eta XXI. mendeko lehen hamarkadan: Wifi gabeko garaiak ziren haiek, eta belaunaldi berriei garai haiek nolakoak ziren erakusteko hasi da Lete iraganeko alpinismoaz mintzatzen.

Tasio Martin bizkaitarra da, eta Amaia Agirrek bezain ondo ezagutzen du Patagonia. Martxoan sekulako balentria gauzatu zuen Sean Villanueva eskalatzaile belgikarra lagun zuela: Fitz Roy mendiko ekialdeko ertza liberatzea. 1.200 metroko pareta da, 40 luze, hiru egun zintzilik eta 7c mailako zailtasuna.



Belaunaldi berriei garai haiek nolakoak ziren erakusteko hasi da Lete iraganeko alpinismoaz mintzatzen. LETE

“Mendizaletasuna guretzat zen lehen; oraingoa, erakusteko”

TXETXU LETE IRAKASLE ETA ABENTURAZALEA

Urnietar zarauztartua da Txetxu Lete (Urnieta, 59 urte). Emanaldia eskainiko du azaroaren 26an, bere garaiko mendizaletasuna nolakoa zen erakusteko

Erredakzioa URNIETA

Egungo gazteei beste perspektiba bat eman asmoz ariko da Saroben, orduko eta gaurko mendizaletasuna oso ezberdina delako. Arraroa egingo omen zaio horretaz mintzatzea gure garai hauetan. Honatx arrazoia: “gurea wi-firik gabeko mendizaletasuna zen. Egun, 9. gradua gainditu eta zabaltzen ez baduzu, ez zara inor”.

Hiru zortzi milako igo zenituen duela hamarkada pare bat, marka handia da hori, herrian inork lortu gabekoa.

Hala da, bai. 90. hamarkadan bi, eta XXI. mendeko lehen hamarkadan, beste bat, baina tira, ez naiz ezberdina edo inor baino gehiago sentitzen hori egin izanagatik. Ezta inoren ispilu edo ezeren aitzindari ere. Maite dut Iñaki Otxoa de Olza mendizale nafarrak esaten zuen esamolde bat: “mendiko turistak gara; benetako alpinistak Kazakhstangoak, edo Poloniakoak ziren, ez gu”. Euskaldunak bagara txobinista samarrak; egiten genituen igoerak kristorenak zirela uste genuen, baina ez zen horrela. 8.000 metroko tontor igoerek oihartzun mediatikoa lortu zutenean, ni tartean suertatu nintzen. Egunkarietan agertzen ginen, eta fama hortik zetorren. Alpinista on baino motibatzaile ona nintzen; burua beti prest gauzak egiteko. Banaiz Urnietan mendi garai gehien igo dituena, baina ez gauza zailenak egin dituena, alpinista onena. Amaia Agirre bera zenak neureak baino aktibitate zailagoak egina da baina ez dute hainbeste oihartzun mediatikorik izan.

Nola iritsi zinen Himalaiaraino? Beste euskal mendizale gehienak bezala?

Askoren parekoa, Euskal Herrian denok egin duguna: Pirinioak, Alpeak, Andeak eta Asia aldera: Indian zazpi mila metroko mendi pare bat, eta gero ja Karakorum Pakistanen eta Himalaia Nepalen. Salbuespen batekin. Aconcagua mendia bizikletan igotzen saiatu nintzen, eta hori egiteko sosak biltzeko txosna bat prestatu nuen eta negatiboan bukatu, San Migel festa haietan euria egin zuelako barra-barra asteburu guztian.

Hiru zortzi milakoetan tontorra, eta beste bietan kale, ezta?

Bai. %66 asmatu nuela esan ohi dut. Hidden Peak edo Gasherbrum I 1995ean. Lehen euskaldunak izan ginen zortzi milako horretan, neu eta Koke Lasa. 1996an kale egin nuen Broad Peak-en, eta 1998an Cho Oyun gailurra Alberto Gil de Murorekin. 2000. urtean kale Everesten, eta 2001ean Gasherbrum II-an gailurra. Hurrengo urtean azken espedizioa izan zen: June alabaren jaiotza. Hor bukatu zen nire lehen bizitza, gailurretik jaisten.

Bai une bitxia erabakia hartzeko, ezta?

Bai. Silvio Ñaro Mondinelli italiarrarekin batera jo nuen Gasherbrum II-ko gailurra. Oso azkar, ondo igo genuen, eta esan zidan italieraz hurrengo urtean K-2 mendira igotzeko espedizioan nahi ninduela, berak ordainduta. Nire lehen aukera zen zortzi mila metroko mendi batera musu truk joateko. Ezezkoa eman nion, Gasherbrum II-tik jaitsita, beste proiektu batzuk nituelako buruan. Karakorum-en egin nuen nire ezkongabe despedida, bizitza molde bat bukatzeko. Banaketa horretatik dator orain emanaldia eskaintzeko aukera.



Lete, aspaldiko argazkian. LETE

Azaldu hori.

Beheko kanpamenduan bi gauza zozkatu ziren. Ferrino kanpin denda kaskar batean edo North Face bikainetan lo egin bata. Kamera txar batekin irudiak filmatzea, bestea. Niri grabatzea egokitu zitzaidan, eta Alberto Gilde Murok gidatuta, espedizioko muntaia egin genuen denon artean.

Wifi-rik gabeko zortzi milako mendiak izango dituzu hizketa gai.

Bai. Egun munduan, mendizaletasunean dagoen azkartasunetik aparte bizi ginen. Ez genuen eguraldi prebisio zehatzik, ez zenuen etxekoekin hitz egiten, postalak bidaltzen ziren, argazkiak botoiari klik-klak eginez egiten ziren. Beste bizi molde bat zen.

Bizimoldea aldatu zenuen, baina abentura grina bizirik mantentzen duzu.

Bai noski. Seme-alabak euren kabuz moldatzen dira, eta hara eta hona mugitu izan naiz bikotearekin. Mendi handiak saihestu ditut aspaldi, dirutzak ordaindu behar direlako baimena lortzeko. Ez nago prest. Eguneroko gozamena beste modu batean bilatzen dut. Abentura kutsua lortzea ez da erraza, baina bizikletan-eta ibiltzen garenean saiatzen gara abentura bilatzen. Lehen dena guretzako egiten genuen, eta orain erakusteko.

Gomendioren bat?

Ez nuke esan behar, baina Indiako mendiak. Inor ez alboan, mendi altuak, herri batean komun bakarra… baina denak sakelakoarekin e?



Nafarroako Antsonea gaztak arrakasta handia izan zuen. AIURRI



Bejondeizula bazkariak, lurretakoak eta Andoaingoak. AIURRI



Urkola-Iturriondobeitia, puzzle lehiaketako irabazleak. AIURRI



Olaberriko Behieko gazta-saltzaileak. AIURRI



Yogurina Borovak bingo-musikatua gidatu zuen. AIURRI



Auskalo erromeria-taldearekin amaiera bikaina eman zioten egunari.

Giro bikaina, azoka berezian

Udazkeneko Azokaren edizio berria antolatu zuen Manuel Larramendi Kultur Bazkunak, Andoaingo Udalaren laguntzarekin. Goiz osoan salerosketa ugari egin ziren eta, arratsaldez, bingo musikatuak eta erromeriak Goikoplaza girotu zuten

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Euskal Herri osoko ekoizleak hurbildu ziren Andoainera, aurreko larunbatean. Eta ezin hobea izan zen goizeko balantzea: salerosketa ugari egin ziren postu guztietan, ardoa eta garagardoa dastatzeko edalontzirik gabe geratu ziren, pintxo ugari saldu zituzten eta, gainera, zozketarako txartel guztiak azkar batean agortu zituten. Pozarren zeuden, beraz, saltzaileak eta Bazkunaren baitan lanean aritu ziren bazkideak.

Txu-txu trenak, gainera, herrikide askoren arreta bereganatu zuen. Goikoplaza-Zumea plaza arteko ibilbidean, Kale Nagusian barrena, trena jendez bete zen goiz osoan.

Paella jan ostean, arratsaldeko ekitaldiei segida eman zieten. Yogurina Borovak girotu zuen bazkalostea. Bingo musikatuaz arduratu zen eta tarte atsegina bezain dibertigarria izan zen. Auskalo erromeria taldeak, bestalde, dantzan jarri zituen olanapera hurbildu ziren guztiak.

Udazken betean da Larramendi Bazkuna

Urteak dira "Andoaingo Euskera, bihotzetik kalera" ekimena abiarazi zuela euskara elkarteak. Kaimuturrean ekitaldia egin zuten urrian eta, bide batez, egoitza berria jendaurrean erakutsi zuten. Gau Beltza ospatu eta bi astera iritsi zen Udazkeneko Azoka. Eta, dagoeneko, Gabonei begira daude. Izan ere, Eguberrien atarian, azoka berezia egingo dute Kale Berria 50eko lokalean (Gipuzcoano zaharra).



Sei sari banatu ziren egun osoan, Udazkeneko Azokan. AIURRI

Sei saski eder zozkatu zituzten

Tonbolarik ez da izan aurtengoan eta, haren ordez, produktusortaz osaturiko sei saski zozkatu zituzten: goizean, hiru; eta, arratsaldean, beste hiru. Euro bateko prezioa zuten txartelak azkar batean agortu ziren eta saski ederra irabazi zutenek poz handia hartu zuten. Ez zen gutxiagorako!

Aukeratu dituzte 2027ko udal egutegiko argazkiak

Andoaingo Udalak argazkilarien egileen berri eman du. Abenduan egingo dute banaketa

Erredakzioa ANDOAIN

- **Urtarrila**. "Neguko ibilaldiak". Nerea Hernandez Perez.
- **Otsaila**. "Artaldea". Irantzu Zubeldia Olasagasti.
- **Martxoa**. "Menditik Karrikara: artaldearen babes bila". Ane Jalon Zatarain
- **Apirila**. "Telegrafo". Jose Antonio Aldasoro Alzueta.
- **Maiatza**. "Hilerri zaharra". Roberto Trutxuelo García.
- **Ekaina**. "San Juan eta umeak". Hilario Rodeiro Cabanas.
- **Uztaila**. "Uda". Aitor Iturralde Fernandez.
- **Abuztua**. "Erreka". Imanol Fernandez Carballo.
- **Iraila**. "Udazkena Leitzaranen". Itziar Alzaguren Almorza.
- **Urria**. "Urtaroen islada hostoan". Nerea Uralde Arrondo.
- **Azaroa**. "Lizarkola en otoño". Jose Manuel Garrido Cobo.
- **Abendua**. "Geltokia". Ana M. De la Revilla.

Abenduan banatuko dituzte Udal egutegiak.

Andoain BAT Agenda Bateratua fase berrian murgilduko da

Herriko eragileen hitzorduak bertan argitara emateko aukera izango dela iragarri dute



Aurreko astean bilera egin zuten Bastero Kulturgunean. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Udalak joan den maiatzean aurkeztu zuen udalerriko ekitaldiak biltzen dituen Agenda Bateratua. Orain arte udal erakundetik abiatutako jarduerei zabalkundea eman zaio. Bada, behin egitasmoa martxan dela, pauso bat harago eman dute eta herriko elkarteei zabaldu nahi diete agenda bateratuaren erabilera. Urrats horren berri eman zuten aurreko astean deitu zuten bileran, Bastero Kulturgunean.

Hala, hasierako asmoa burutuko da: Udalak eta herriko era guztietako elkarteek antolatzen dituzten ekintzen topagunea izatea Agenda Bateratua.

Agenda, bakarra, hiru aldaera

- APP-a; QR kodea eskaneatuta, aplikazioa deskargatu eta erabili daiteke.
- Webgunea: andoainbat.eus gunean klik eginez, hitzorduen berri izango dugu.
- Eskuorria: hilabeteroko agenda paperean argitaratuko da. Honako guneetan aurki daiteke: Ataria, Anbrosia Olabide eraikina, Urigain kultur etxea, Arrate pilotalekua, Liburutegia, Gazte Lokala, Ludoteka eta Allurralde kiroldegia.

Graffitia kendu dute, laser bidezko sistema erabilita

"Zorionez, ingurunea eta erreka kaltetu edo kutsatu gabe egitea lortu da", adierazi du Andoaingo Udalak



Laser bidezko sistema erabili dute Unanibiko graffitia kentzeko. UDALA

Erredakzioa ANDOAIN

Orain bi hilabete graffitia margotu zuten Unanibian eta gertaerak zalaparta handia eragin zuen. Aste honetan, Andoaingo Udalak garbiketaren berri eman du. Poza agetu du udal erakundeak egindako jarduerarekin: "Asko pozten gaitu jakinarazteak lan askoren ostean lortu dela zubia garbitzea. Laser bidezko sistema aurreratua erabili da, izan ere, ondare arkeologiko, historikoa eta kultural handikoa da zubia, eta, zorionez, ingurunea eta erreka kaltetu edo kutsatu gabe egitea lortu da. Zaindu dezagun herria!".



Unanibi zubia, egunotan. AIURRI

KUTXA FUNDAZIOA

Gipuzkoa Ahalbidetuz

Ideia berriak egi bihurtzeko behar duzun laguntza.

Kirol albisteak, webgunean

















AIURRI.EUS

ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Euskaldunako lehen taldea. ARGINDAR

Euskalduna-Getariako, lehen bi sailkatuen arteko partida

Hamargarren jardunaldiko partida garrantzitsuena Ubitarten jokatuko da, larunbatean, 16:30ean hasita

Erredakzioa ANDOAIN

Gorengo mailako denboraldiaren lehen herena jokatu da eta joera argia da: Getariako eta Euskalduna talde sendoak dira. Puntu asko pilatu dituzte dagoeneko eta, horri esker, sailkapenaren lehen bi postuetan dira.

Getariako taldea da ondoen doana, 24 punturekin. Estatistika bikaina du: 8 garaipen eta porrot bakarra. Euskaldunak ere partida bakarra galdu du baina, bidean, bi berdinketa egin dituenez, lehen bi sailkatuen aldeko diferentzia 4 puntukoa da orain.

Larunbateko partida garrantzi handikoa da urdiñentzat. Getariako garaitzea gaikaldeari eustea litzatekeelako. Gainerakoan, urrunegi joan daiteke liderra.

Etxean, zaletuen aurrean, Euskalduna partida ona egiten ahaleginduko da.

GORENGO MAILA

9. JARDUNALDIA / 2. MULTZOA

Getariako - Idiazabal	2-0
Zarautz B - Euskalduna	1-2

SAILKAPENA

		P	J
1	Getariako	24	9
2	Euskalduna	20	9
3	Lazkao	16	9

ASTEBURUAN

16:30 Euskalduna - Getariako / *Lar.*

9. JARDUNALDIA / 1. MULTZOA

*Urnietak ere liderra jasoko du etxean.

Danena - Urnieta	1-0

SAILKAPENA

1. MULTZOA

		P	J
1	Ostadar	23	9
2	Touring B	21	9
5	Urnieta	14	9

ASTEBURUAN

16:00 Urnieta - Ostadar / *Lar.*



Artxiboko irudia. UKE

Leizaran-Urnieta, larunbatean Allurralden

Indartsu ekin dio denboraldiari Urnietak. Partida ona egin beharko du, beraz, Leizaranek

Erredakzioa URNIETA

Eskubaloiko Urnieta Guria Jatetxeak 29-25 irabazi zion Ordiziari, aurreko ostegunean. Baina ezin izan zuen Soraluze etxeko partidan mendean hartu (25-32). Bi partida gogor izan dira 1. Lurraldeko lehenengo bi sailkatuen aurka jokatutakoak. Sailkapenean Urnietako taldea bosgarren postuan dago.

Asteburu honetan Andoaingo eta Urnietako bi taldeak elkarren aurka ariko dira Allurralde kiroldegian. Indartsu ekin dio denboraldiari Urnietako taldeak, beraz, eta partida ona egin beharko du Leizaranek.

1. LURRALDEKOA

ESKUBALOIA

Urnieta KE-Soraluze	25-32
Aloña Mendi-Leizaran	29-26

SAILKAPENA

		P	J
1	Ordizia	15	9
2	Soraluce	15	9
3	Munttarpe	13	9
4	Tolosa B	11	9
5	Urnieta	10	9
10	Leizaran	6	9

ASTEBURUAN

20:00 Leizaran-Urnieta / *Larunbata*



MIREN BLANCO

Gipuzkoako pista txapelketa

Pistako denboraldiari ekin diote Andoaingo Txirrindulari Eskolako kadeteek. Lehen jardunaldia azaroaren 7an izan zuten eta, hurrengo asteetan, larunbatero izango dituzte hitzorduak. Gainera, larunbat honetan, Gipuzkoako txapelketa jokatuko da Donostiako belodromoan. Esperientzia zirraragarria izango da.



TXIRRINDULARI ESKOLA

Ziklo-kros denboraldia

Txirrindularitzan ere, garaian garaikoa. Errepidean aritzeko sasoia amaituta, Andoaingo Txirrindulari Eskolako Aner Barrenetxea eta Unax Guisado ziklo-kros denboraldian murgilduta daude. Villarcayo, Medina de Pomar eta Amurrioko proba ezagunetan izan dituzte lehen lasterketak. Txirrindularitza jarduera teknikoa da ziklo-krosa. Trebatzeko, aparta.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

andoaINDARRA euskaraz



GEPF

Trinketean, txapeldun

Gaztelekuk irabazi du trinketeko larruzko paletako nagusien Gipuzkoako Txapelketa. Aurreko asteburuan jokatu zen finala Irurako Ametsa trinketean, eta Gazteleku nagusitu zen (40-16) EPLEren aurka. Gaztelekuk txapelketa bikaina osatu du, partida guztiak irabazita. Argazkian, gorriz, txapelarekin, irabazleak: Iñaki Lopez de Munain eta Koldo Ponce.



UKE

UKEkoak, Bera Berarekin

Aurreko larunbatean Urnietako jokalariak Gascan izan ziren goi mailako eskubaloiaz gozatzen. Gainezka zegoen kantxan Donostiako taldeak European Leaguerako txartela lortu zuen. Emozio handiko partida izan zen Rocasa Gran Canaria taldearen aurka jokatu zutena. Berdinduta amaitu zuten, eta puntua nahikoa zenez, pozez zoratzen ziren denak.

Oriamendiren azken erremonte jaialdiak, Galarretan

Oriamendik bere historiako azken bost jaialdiak antolatuko ditu azaroaren 28tik abenduaren 26ra bitartean. Erremontearen bost arratsalde gogoangarri izango dira Hernaniko Galarreta pilotalekuan, eta bertan jokatuko dira Bigarren Mailako Binakako Txapelketa eta LVI. Binakako Erremonte Txapelketa Nagusia.

Lehen jaialdia, azaroaren 28koa, festa handia izango da. Donostiako Gross garagardotegia Galarretara itzuliko da DJarekin, bere garagardoarekin eta beste hainbat sorpresarekin.

Abenduaren 19an binakako txapelketako finalaurrekoa eta Bigarren Mailako finala jokatuko dira.

Abenduaren 26an iritsiko da finala, eta, harekin batera, agurra: Oriamendi osatzen duten pilotariei, langileei eta ikuslegoari.

Mendi lasterketa herrikoi berria, Poxta Zaharren eskutik

Izen-ematea zabalik dago Herri Krosa webgunean. Poxta Trail izenekoa, 2027ko martxoaren 20an izango da

Erredakzioa URNIETA

Lasterketa berriak 8 kilometroko ibilbidea izango du, guztira, 340 metroko desnibel positiboarekin. Bexabitik abiatu, Onddira igaro, Mulisko aldera jaitsi eta Xoxokan amaituko da. 2027ko martxoaren 20an izango da Poxta Trail izeneko lasterketa berria..


Urnietako gazte kuadrillen elkartea ekimen betean da. Kuadrillen Eguna ospatuko duen astean ekimen berritzailea iragarri du: mendi lasterketa, Urnietako paraje ederrenetan barrena. Adin eta maila guztietako parte-hartzaileei zuzenduta dago.

Parte hartzeko gutxieneko adina 12 urtekoa izango da. Izenematea zabalik da eta Herri Krosa webgunearen bidez egin behar da. 15 euroko kostua izango du, eta partaide bakoitzak kamiseta bana eskuratuko du.



Mulisko-gaina, Adarramendi atzean.





FERNANDEZ

Moto 3 mailan egingo du debuta

"Levelup mta taldeak jakinarazi du #18 Matteo Bertellek ez duela Portimaoko Sari Nagusian parte hartuko. Medikuaren gomendioari jarraituz, pilotuak ez du lasterketan parte hartuko. Haren ordez, gure taldearen koloreak defendatuko ditu Beñat Fernandezek". Hitz horiekin egin dute andoaindarraren debutaren aurrerapena. Uste baino lehen dator.



Zeharkaldiko protagonistak, Bastero Kulturgunean. AIURRI

Andoaindarren zeharkaldiak ikuslegoaren arreta piztu zuen

Aitor Iginitzek Manasluko zeharkaldia izan zuen hizpide argazki eta bideoen laguntzaz, Mendi Astean

Xabier Lasa ANDOAIN

Bastero Kulturguneko emanaldian izan ziren Aste Santuko zeharkaldiko protagonistak: Xabier Iribar, Iñaki Urretabizkaia, Joselu Iginiz, Joseba Maiza, Mikel Altuna eta Elias Aranburu. Mikel Maiza bakarrik falta zen.

Iginitzek hainbat xehetasun azaldu zizkien hitzordura hurbildu ziren mendizaleei: tamainako mendi txangoa egiteko behar diren baldintza fisikoak, Himalaiako eremu horretan zein paisai natural eta mendi tontorrez goza daitekeen, zeharkaldian aurki daitezkeen herrixkak, herritarrak eta hango kultura eta erlijio sinesmenak, zamalarien bizimodua...

Mendi Astearen azken emanaldiak

Aste hasieran ekitaldi gehiago izan da eta, amaiera, asteburuan iritsiko da.

- Azaroak 19, osteguna: "Buruntse mendiaren deia", Xiril Alvarezen eskutik. Euskaldunaren egoitzan, 19:00etan.
- Azaroak 22, igandea: Mendi irteera (Arano-Oianume) eta bazkaria Oianume jatetxean.



Gazteleku Pilota Elkarteko kideak, Arrate pilotalekuan. GAZTELEKU

Winter Series desafioa, igandean, Arraten

Gazteleku Pilota Elkarteak, Andoaingo Udalarekin elkarlanean, Gernikan ari diren Winter Series txapelketako pilotari onenen arteko desafioa iragarri du: igandean izango da, arratsaldeko 17:30ean hasita. Sarrera 5 eurokoa da

Erredakzioa ANDOAIN

Urteak dira ez zela maila horretako partidarik antolatzen. Bada, asteburuan, onenentsuak hurbilduko dira Andoaingo Arrate piltalekura. Barandika-Basque eta Erkiaga-Lekerika, egun, antolatu daitekeen partidarik zirraragarriena da. Hala, Andoaingo eta inguruko pilotazaleek zesta-puntako onenak bertatik bertara ikusteko aukera izango dute.

Aurretik emakumezkoen arteko partida jokatuko da. Honetan ere mundu mailan onenen artean dabiltzan pilotariak ariko dira: Elaia-Frida eta Naroa-Maia.

Naroa, gainera, bertako pilotaria da. Gaztelekukoa, hain zuzen.

Sarrerak

Arrate pilotalekuko sarreran erosi ahal izango dira. 16:30etik aurrera. Bertatik ateratako dirua Gazteleku elkartearentzat dirulaguntza izango da.



Erkiaga. ERAMAN



Lekerika. ERAMAN



Basque. ERAMAN



Barandika. ERAMAN

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ERAKUSKETA

ANDOAIN Nekearen teoria
Erakusketa kolektiboa.
Bastero Kulturgunea.

ANTZERKIA

URNIETA Munstro arrosa
Haur eta familientzako antzezpena.
Azaroak 22, igandea.
12:00, Sarobe.

URNIETA Me too
Ainhoa Aierbe eta Tessa Andonegi.
Azaroak 29, igandea.
19:00, Sarobe. Dohainik.

MUSIKA

ANDOAIN Kontzertuak
Uto&Kaene.
Azaroak 20, ostirala.
Andoaingo Gaztetxea.

Parabellu, Mostaza, Karizia, Txarrantxa.
Azaroak 21, larunbata.
Andoaingo Gaztetxea.

MENDIA

ANDOAIN Mendi Astea
"Baruntse mendiaren deia", Xiril Alvarez.
Azaroak 19, osteguna.
19:00, Euskalduna MT.

Mendi irteera eta bazkaria.
Azaroak 22, igandea. Oianume.



Iazko Kuadrillen eguna.

URNIETA Kuadrillen eguna
Goizean, San Juan plazan:
11:00 Desapiyua.
12:30 Karropoteoa.
Eguerdian, Egapen:
14:00 Herri-bazkaria.
Arratsaldean, Egapetik hasita:
17:00 Mozkor jokuak.
18:00 Matraka elektrotxaranga.
Gauean, Egapen:
21:00 DJ Atxukarro.
00:00 DJ Pitus.
Azaroak 21, larunbata.
Egunean zehar, herrian barrena.

URNIETA Ikus-entzunezkoak
Amaia Agirre Mendi Zinemaldia: "Gasherbrum II", Txetxu Lete. Proiekzioa eta solasaldia. Elkarrizketa, 6. orrialdean.
Azaroak 26, osteguna. 19:30, Sarobe.


Amaia Agirre Mendi Zinemaldia: "Coincidencias Patagonicas", Tasio Martin. Proiekzioa eta solasaldia. Elkarrizketa, 7. orrialdean.
Azaroak 27, ostirala. 19:30, Sarobe.

HAUTESKUNDEAK

ANDOAIN Ekitaldia
Maialen Iriarte EH Bilduko Gipuzkoako buruzagia eta Andoni Alvarez Andoaingo alkatea hizlari ariko dira.
Azaroak 24, asteartea.
19:00, Bastero Kulturgunea

ANDOAIN, URNIETA Bozketa
Botoa emateko eguna.
Azaroak 29, igandea.

ZINEMA




ANDOAIN

BASTERO

Sacamantecas
Azaroak 21, larunbata. 19:30.
Azaroak 22, igandea. 19:30.
Azaroak 23, astl. 17:00, 19:30.

Ratones al ataque: Operacion Navidad
Azaroak 21, larunbata. 17:00.
Azaroak 22, igandea. 17:00.



FITXA TEKNIKOA ETA SINOPSIA

Sacamantecas
Zuzendaria: David P. Sañudo. **Aktoreak**: Antonio de la Torre, Patricia Lopez Arnaiz, Josean Bengoetxea, Eneko Sagardoy, Haizea Carneros, Luis Callejo, Urko Olazabal... **Herrialdea:** EH (2026). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Iraupena:** 105 m. **Generoa:** drama.



Araban kokatutako filma

Araba, XIX. mendearen amaiera. III. Karlistaldia hilzorian dagoen bitartean, emakume batzuk itota agertzen dira Gasteizko kanpoaldean. Angela Berrosteguieta, biktimetako baten arreba, justizia bila dator. Juan Diaz de Garayo nekazari analfabetoa egin nahi du krimenen erantzule. Hala ere, Pio Pinedok, aguazilen buruak, aurre egin behar dio gerra garaiko baliabide faltari eta agintarien presioari, hilketen bolada gero eta handiagoa ezkutatzea nahiago baitute.

Milagrosaren ospakizuna

Ehun urtetik gorako tradizioari jarraituz, aurten ere Milagrosaren ospakizuna egingo dute San Martin parrokian. Hitzorduak:

- Azaroak 21, larunbata: 18:30, mezaren amaieran.
- Azaroak 22, igandea: 11:30, mezaren amaieran.
- Azaroak 27, ostirala: 18:30, meza berezia koroa eta guzti.



AIURRI

Urnietako udala

Aurkeztu dute Azaroaren 25eko egitaraua

Mural margoketa, antzezlana, ikuskizun urratzaileak... urtero bezala, Andoaingo Udalak ekitaldi-sorta antolatu du. Emakumeenganako indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko egunean, berriz, mugimendu feministaren deialdiekin bat egingo du



Aurkzpen-ekitaldia egin zuten Andoaingo udaletxean. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Azaroaren 25ean da Emakumeenganako indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko eguna, eta urtero moduan, ekitaldisorta antolatu ohi du Andoaingo Udaleko Berdintasun lansailak. Datorren larunbatean, azaroak 21, Udal Ludotekan, murala margotuko dute. Azaroaren 25ean, berriz, mugimendu feministak antolatutako ekimenekin bat egingo du udalak.

Hilaren 27an, ostiralarekin, "Feminissimas" antzerki lana iragarrita dago baina ikustear da egun horri eusten dioten. Izan ere, ikuskizunetako teknikariek greba deitu dute azaroaren 26an eta 27an. Euskal Herriko sindikatuen babes zabala jaso du ekimenak. Gerta liteke, datozen orduetan, ekitaldia dataz aldatzea. Obrak feminismoaren teoriaren eta eguneroko bizitzaren arteko kontraesanak aztertzen ditu, umorearen eta ironiaren bidez: "Hiru lagun, nerabezarotik elkar ikusi gabe egon ondoren, feminismoaren kongresu batean elkartuko dira berriro, eta feminismoa ulertzeko dituzten modu ezberdinek euren adiskidetasuna jarriko dute proban".

Eta azkenik, azaroaren 29an, igandean, Itziar Zigak eta Itxaso Badellek sortutako Las Wallpurguis konpainiaren "De cuando existía el purgatorio" antzezpen esperimentala izango da.

Emakumezko erreferenteak zikloa iragartzeko afitxan

Erreferente diren emakumeak ageri dira, hala nola, Ana Maria Matute idazlea, Angela Davis filosofoa, Malala Yousafzai aktibista edo Carmen Alcacera Perez, Andoaingo emagina, Huescatik etorri eta Andoainen aritu zena 1966ra arte.

Astearen hasieran egin zuten zikloaren aurkezpena eta bertan izan ziren ordezkaritza duten alderdi politiko guztiak.

ERREFERENTE DIREN EMAKUMEZKOAK AGERI DIRA AFITXAN: MATUTE, DAVIS, ALCACERA...



Amaia Agirre eta Iker Bilbao, Fitz Roy (3.405m) mendian zendu ziren elur jausi baten ondorioz, 2023-ko Urtarrilaren 19-an

AMAIA AGIRRE

mendi zinemaldia

2026ko azaroak 26 eta 27an

19:30 | Urnietako Sarobe antzokian

26 osteguna

Txetxu Lete
GASHERBRUM 2 (PAKISTAN)
Hogeita bost urte atzera eginez, wifirik ez zegoen garaikoa

27 ostirala

Tasio Martin
CONICIDENCIAS PATAGONICAS
Fitz Roy mendiko ekialdeko ertza

Aurreko edizioetan bezala, aurten ere mendizaletasunaren arloan ezagunak diren kirolarien presentzia izango dugu eta zuzenean kontatuko dizkigute mendian bizi izan dituzten esperientziak.

Antolatzailea

Babeslea